




2 KARTA JOKOA

INPRIMAGARRIA



1 ZIKLOA





Karten atzeko aldea



MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA


JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA



ANIZTASUNA


JOKOA



1 ZIKLOA

1 ZIKLOA





Karten atzeko aldea



MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA


JOKOA

MEMORIA
KARTA

FAMILIA

ANIZTASUNA

JOKOA



1 ZIKLOA

3

NIRE FAMILIA




Nolakoa da zure familia? Deskribatu eta marraztu ezazu!

NIRE FAMILIA

Partaideak:

Marraztu zure familia:



1 ZIKLOA
2 ZIKLOA
3 ZIKLOA




4

NONDIK OTE DATOZ UMEAK?



Irakurri Txintxok eta ikasleek duten elkarrizketa.



TXINTXO

Kaixo lagunok!

Ba al dakizue nola sortzen garen gizakiok? Gaur **ugalketa**ri buruz hitz egingo dugu!



Baina... zer da **ugalketa**?



Ugalketa gizakiak beste gizaki batzuk sortzeko prozesua da.



Eta... **nola** egiten da?



Ugalketa gertatzeko, **obulua** eta **espermatozoidea** elkartu behar dira.


1 ZIKLOA

2 ZIKLOA

3 ZIKLOA

ESPERMATOZOIDEA

Gizonen sexu-zelulak dira, mikroskopikoak dira, zapaburu antza dute eta barrabiletan sortzen dira.



OBULUA

Emakumeen sexu-zelulak dira, handiak eta biribilak dira, eta obulutegian sortzen dira.






Ugalketan
3 etapa
daude



1

ERNALKETA



2

HAURDUNALDIA




3

ERDITZEA



ARIKETA: Orain, testuairakurri ondoren,
espermatozoideak eta obuluak bereizteko gai zarete?
Jarri dagokion izena bakoitzari!



1 ZIKLOA



ARIKETA: Ikasitakoa praktikan jarriko dugu, horretarako hurrengo galdetegia egin. Aukeratu erantzun bakarra!

1. Bi espermatozoide soilik elkartzen badira ugalketa gerta daiteke?

- a) Bai
- b) Ez



2 ZIKLOA

3 ZIKLOA

2. Zer sortzen da ugalketa prozesuaren ondorioz?

- a) Gizakia
- b) Obulua
- c) Espermatozoideak



3. Zeintzuk dira ugalketaren faseak ?

- a) Ugalketa eta ernalketa
- b) Ugalketa, haurdunaldia eta erditzea
- c) Haurdunaldia eta erditzea



4. Non sortzen dira obuluak?

- a) Barrabiletan
- b) Obulutegian
- c) Umetokian

5. Non sortzen dira espermatozoideak?

- a) Obulutegian
- b) Barrabiletan
- c) Zakilan



Behin galdeketa hau erantzun ondoren, taldeka honako galdera hau eztabaidatu beharko duzue:

- *Familia homoparental batean nola gerta daiteke umeak izatea?*

5

SEME-ALABAK IZATEKO BIDEAK



Familia batzuek ezin dituzte umeak modu naturalaren bidez izan, arazoak dituztelako edo sexu bereko bi obulu edo bi espermatozoide dituztelako. Hortaz, modu desberdinak daude seme-alabak izateko.

Bildu zaitezte 5 kideetako taldetan, aztertu hurrengo testuetako bat eta atera itzazue ideia nagusiak.



ADOPZIOA

Ume askok guraso biologikoak dituzte, hau da, ugalketaz haurraren jaiotzan biologikoki esku hartu zutenak.


Baina, askotan guraso horiek ezin daitezke umeaz arduratu arrazoi ezberdinengatik.

Horren ondorioz, haurrak umezurtz gelditzen dira, eta beste familia batzuek adoptatu egiten dituzte, familiak ugalketa arazoak izan edo ez.

Adopzioa prozesu luzea da, baina familia berri eta polit asko eratzen dira.


3 ZIKLOA





Asha Iribar

Asha Indiar jatorriko neskatoa da, Calcuta hirian jaioakoa. Txikia zelarik bere gurasoek hura mantendu ezinik eta hari bizitza duin bat eman nahian adopzioan eman zuten.





Bizkaitar familia batek adoptatu eta bere jatorrizko izena mantentzea erabaki zuen.

Asha

Asha egun Bilbon pozik bizi da bere familia euskaldunarekin. Euskaraz ederto baten aritzen da eta Lehen Hezkuntza bukatzeaz dago.

Nagusitan irakaslea izan nahi du, txikitatik irakaskuntza mundua izugarri gustatu zaio eta.



IN VITRO ERNALKETA

Bikote batek modu naturalean (sexu bidez) seme-alabak izan ezin dituenean, beste metodo batzuk erabili edo bilatzen dituzte, horien artean IN-VITRO ernalketa.

Edo ezkongabeak direnak eta seme-alabak izan nahi dituztenak, ... etab.


* ZERTAN DATZA?

Ernalketa mota hau gorputzetik kanpo gertatzen da, emakumeari bere obulua hartzen zaio eta gizonezkoari, aldiz, bere espermatozoidea.

Behin bi zelulak ditugunean, laborategi batean horiek elkartu egiten dira ernalketa gertatu dadin.

Ernalketa gertatu denean, ernaldutako obulua umetokian itsasi egiten da, bertan garatzeko. Hots, umea hazi dadin.

3 ZIKLOA





INTSEMINAZIO ARTIFIZIALA

Intseminazio artifiziala mundu mailan gehien erabiltzen den teknika da.

* Zer da intseminazio artifiziala?

Lehenik eta behin espermatozoideak laborategian prestatu egiten dira, mugikortasun handiena dutenak aukeratzeko.

Espermatozoide horiek bikotearenak edo emaile batenak izan daitezke.

Ondoren, aukeratutako espermatozoideak emakumearen umetokian sartzen dira ernalketa gertatu dadin.

Prozesu hori eta gero, haurdun geratzen da.

3 ZIKLOA





ARIKETA: Egia edo gezurra?

Unitatea aurrera egin ahala, pixkana-pixkana bagoaz definizio eta termino gehiago ikasten. Jarduera honetan, galdera batzuen bidez orain arte ikasitako guztia praktikan jarriko dugu!

Hasteko, jarraian agertzen diren esaldiak banaka irakurri beharko dituzue eta esaldi bakoitzaren alboan E (egia) edo G (gezurra) den X batekin markatuko duzue. Behin guztiok ariketa bukatu dugula, guztion artean zuzendu eta eztabaidatuko dugu.

ESALDIA	EGIA	GEZURRA
Familia monoparentala aita eta ama batez osaturik dago.		
Gizartean familia mota bakarra dago.		
Familia biparentala aita eta ama batez osatuta dago.		
Ugalketa gizakiak beste gizaki batzuk sortzeko prozesua da.		
Gizonezko bi sexu zelula berdinekin (espermatozoiideekin) ernalketa gerta daiteke.		
Ugalketak hiru etapa ditu: ernalketa, haurdunaldia eta erditzea.		
Intseminazio artifiziala gorputzetik kanpo egiten den ernalketa da.		
Adopzioa seme-alabak era naturalean eduki ezin dezaketen gurasoek baino ez dute egiten.		
Obulua emakumezkoen sexu zelula da eta gizonezkoena aldiz, espermatozoidea.		

2 ZIKLOA

3 ZIKLOA



ARIKETA: Hitzak bere lekuan!

Bete itzazu hutsuneak taulan dauden hitzekin.

UGALKETA	FAMILIA HOMOPARENTALA	OBULUA
ESPERMATOZOIDEA	HIRU	IN-VITRO

- 1. Bi amez edo bi aitez osatutako familiak _____ deitzen dira.
- 2. _____ gizonen sexu-zelulak dira.
- 3. Ugalketan _____ etapa daude; ernalketa, haurdunaldia eta erditzea.
- 4. _____ handiak eta biribilak dira, eta obuluteagian sortzen dira.
- 5. Gizakiak beste gizaki batzuk sortzeko prozesuari _____ deitzen diogu.
- 6. Bikote batek modu naturalean seme-alabak izan ezin dituenean, beste metodo batzuk erabili edo bilatzen dituzte, horien artean _____ ernalketa.



2 ZIKLOA


3 ZIKLOA



6

PIPITAKI PAPATAKI... ERANTZUNA NORK DAKI?

Jarraitu itzazue hurrengo pausuak jolasa egiteko!



JARRAIBIDEAK

1. Banandu zaitezte klaseko kide guztiak bi taldetan, **A** taldea eta **B** taldea.
2. Talde bakoitzeko **bozeramaile bat** aukeratu.
3. Orain arte landu ditugun kontzeptuak idatzirik izango dituzten **txartel** ezberdinak nahastuko ditugu.
4. Talde bakoitzeko bozeramaileari horietako txartel bat banatuko zaio.
5. A taldeko bozeramaileak txartelean adierazten den kontzeptua B taldeari **mimikaren** bidez azaltzen saiatu beharko da, eta B taldeak aldiz, **zein kontzeptu den asmatu** behar du.
6. Ondoren, berdina egingo dugu baina oraingoan B taldeko bozeramaileak A taldekoei azaldu beharko die, eta A taldekoek berriz, kontzeptua asmatu.
7. Jolasa amaitzerakoan talde handian asmatzeko zailenak izan diren kontzeptuak eztabaidatuko ditugu.

2 ZIKLOA

3 ZIKLOA

OHARRA: Bozeramailea beti bera ez izateko, taldekideen artean bozeramailearen rola txandakatu beharko duzue.

TXARTELAK HURRENGO ORRIAN!



TXARTELAK




*Familia
monoparentala*



Obulua



Espermatozoidea




*Familia
homoparentala*



Haurdunaldia



Erditzea



2 ZIKLOA

3 ZIKLOA